

BEZEROEN SEGMENTAZIOA

Atal honetan gure bezeroak zein diren zehaztuko dugu: demografiari erreparaturaz, Bilbo Handiko eremu geografikoan oinarrituko gara eta, bezeroen adinari dagokionean, 3. adineko pertsonak dira, zehatzago izateko, adin tartea 70 urte ingurukoa edo gehiagoko adinekoak dira, zaintza zerbitzua behar dutenak. Gure bezeroen egoera zehatza da, hau da, adineko pertsonak zeinek laguntza behar duten haien egunerokoa bakarrik egin ezin dutelako. Bilboko udalak argitaratutako datuen arabera 45-50 mila pertsona dira bakarrik bizi eta laguntza behar dutenak.

Esan beharra dago persona zaharren zaintzeko ardura familiei egokitzen zaiela, adineko pertsonen ardura duten familiak ere gure bezero izango dira. Horrexegaitik askotan familiak izango dira gure enpresarekin kontaktuan jarriko direnak.